

# EKITALDIAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Planifikatu ekitaldi jasangarri bat, inklusiboa, jatorra, atsegina, sormenezkoa...




**SARETUZ**

Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaile Sarea  
Red de Consumo Consciente, Responsable y Transformador de Donostia

# EKITALDIAK ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Lan hau Creative Commons-eko lizentziapean dago:



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin Nazioarteko 4.0

Lizentzia honek askatasuna inplikutzen du:

- ▶ Partekatu – kopiatu eta berriz banatu materiala edozein lekuan eta formatuan.
- ▶ Egokitu – nahastu, eraldatu eta sortu materialetik abiatuz.

Saretuz, lan honen sortzailea eta argitaratzailea den bezala, ez ditu askatasun hauek atzera botako lizentziako terminoak jarraitzen badira.

Ondorengo terminoen arabera:

- ▶ Atribuzioa – Lan honi ematen zaion erabilera modu egokian izan behar da, lizentziari lotura bat eskainiz, eta aldaketak egin diren adieraziz. Arrazoizko edozein modutan egin daiteke, baina ez Saretuz-en babes duela adierazten duen moduan.
- ▶ BerdinPartekatu - Nahastu, eraldatu egiten da edo material berri bat sortzen da lan honetatik abiatuz, bere kontribuzioa banatu ahal izango da, beti ere jatorrizko lanaren lizentzia bera erabiliz.
- ▶ Murrizketa gehigarririk ez dago – Creative Commons-eko lizentzia honek uzten duen edozein erabilera beste pertsoneri legez mugatzen dien, legezko terminoak eta neurri teknologikoak ezin dira aplikatu.



## SARETUZ

**Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaile Sarea**  
*Red de Consumo Consciente, Responsable y Transformador de Donostia*

Lan-taldea	▶ Saretuz (Idurre Zugazagasti Aja, Lorea Undagoitia Rivero, Manu Gonzalez Baragaña, Oihana Orkolaga Fernandez).
Itzulpena	▶ Elkar Lan.
Diseinua eta maketazioa	▶ Adibide Komunikazioa.
Inpresioa	▶ Muñagorri

Donostia / San Sebastián, 2017ko ekaina.

Argitalpena doan deskargatzeko:

Babesleak:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



# AURKIBIDEA

---

01

03

1-

03

2-

04-07

2.1-

04

2.2-

06

2.3-

06

2.4-

06

2.5-

07

3-

08-19

3.1-

08

3.2-

11

3.3-

14

3.4-

15

20-21

“Ekitaldi” bat espazio zehatz batean eta denboraldi zehatz baterako jarduera planifikatu bat da, sozializatorako ingurune bat sortuz eta pertsona multzo bat barneratuz.

“Ekitaldi” termino honekin izaera desberdineko hamaika modalitate multzokatzen dira, horien artean: bilerak, jardunaldiak, kontzertuak, jaiak, arte erakusketak, hitzaldiak edo kongresuak, musika edo zine jaialdiak, baita kirol probak ere.

Beraz, ekitaldiek ez dute jarduera patroia uniforme bat osatzen. Aitzitik, milaka eredu daude, bakoitza bere ezaugarri eta zehaztasunekin, eta aldakorrak izango dira dituzten berezitasunen arabera: tipologia, kokapena, bertaratzen diren pertsona kopurua, burutzen diren praktika mota, bertan eskainiko diren zerbitzuak, etab.

Ekitaldi batek, edozein modukoa dela ere, eragin positiboak eta negatiboak sortzen ditu ezinbestean. Eragin hauek kultura-hezkuntza, emozional, gizarte, ekonomia eta ingurumen mailakoak dira eta ekitaldia ospatzen den lekuan eta ingurunean bertan sortzen dira.

Ekitaldi bat eraikitzeke eta antolatzeko fase desberdinetan esku-hartzen duten pertsonak eta eragileek hartutako erabakiek garrantzia handiagoa izan dezakete hemen, era berean, ekitaldia zehaztutako helbururantz orientatu dezakete, maila kultural, sozial, ekonomiko eta ingurumen mailan giltza diren ezaugarriak kontutan hartzearen bitartez.



Gertaera honetatik abiatuz eta gure herrietan ospatzen diren ekitaldi desberdin horiek guztiak kontuan izanik, Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaileko Saretik, ekitaldiak antolatzeko orduan, jasangarritasuna zeharkako moduan irizpide bezala barneratzeko garrantzia nabarmendu nahi dugu. Honek, bizikidetzeta eta kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile kultura berri bat inplikatzeko du.

Testuinguru honetan eta burutzen dugun kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaileko alternatibak eraikuntza prozesuan eta proposamenean barneratuta, Saretuz-etik “Ekitaldiak antolatzeko irizpideak” deituriko lana aurkezten dugu. Modu parte-hartzailean eta lankidetzeta moduan eraikitako materiala da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren babesa izan du.

Material hau, bizitzaren jasangarritasuna eta kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailea, eragile, elkarre edota pertsona desberdinek antolatutako ekitaldietan barneratzeko helburuarekin planteatzen da, askotan ahaztuta geratzen diren hainbat alderdiren inguruan kontzientzia hartzeko. Alderdi hauek, era berean, jardueraren antolakuntza prozesua eta gauzatzea egokiagoa eta eraikitzaileagoa izan dadin lagun diezagukete.

Lan honetan garatzen diren irizpideen aplikazioa, ikaskuntzako eta hobekuntzako prozesu etengabe bat bezala planteatzen dugu, alderdi hauek guztiak ekitaldi bakar batean kontuan hartzeak sor dezakeen zailtasunaz kontziente garelako. Helburu hau, urratsez urrats finkatzen joan behar den etengabeko prozesu baten bitartez gauzatzen da, ekitaldi bakoitzaren faseak eta alderdi eta ezaugarri desberdinak kontuan hartuz.

Are gehiago, ekitaldi jasangarriak antolatzeko eta garatzeko ardura duten pertsonen lana erraztea da; era berean, jasangarritasuna ingurumena baino gehiago dela gizarteari ikustera ematea eta kontzientzia hartzea. Horrez gain, edozein jarduera edo gertakaritan aplikatua eta zeharka erabil daiteke eta erabili behar da.

Proposatzen den metodologia, kasu horretan, ez da zorrotza, kasu zehatz bakoitzaren egoeretara eta berezitasunetara egokitu behar da baizik. Burutu behar diren urratsen eta faseen inguruan orientazio bezala balio izatea nahi du, planifikatutako beste edozein ekintzatan gertatzen den bezala. Hau da, ekitaldiaren izaera eta helburua kontuan hartu beharko da, lan honetan zehar eskainitako irizpideetako bakoitzaren aplikazio maila balioztatzeko.

Lan honetan, ekitaldiak sor ditzakeen eragin posibleen inguruan, hausnarketa egin behar den fase desberdinen definiziotik, ekitaldia beraren definizioan, garapenean eta ebaluazioan antolatzaileen aldetik kontuan hartu beharreko gai nagusietaraino. Hori guztia, lan hau egituratu dugun kultura-hezkuntza, gizarte, ingurumen eta ekonomia ezaugarriak kontuan izanik eta ekitaldietan jasangarritasunaren planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa errazten duten tresna praktikoak eskainiz.

**Lan honek, burutu behar diren urratsen eta faseen inguruan orientazio bezala balio izatea nahi du, planifikatutako beste edozein ekintzatan gertatzen den bezala. Hau da, ekitaldiaren izaera eta helburua kontuan hartu beharko da, lan honetan zehar eskainitako irizpideetako bakoitzaren aplikazio maila balioztatzeko.**

# ZER DIRA EKITALDI JASANGARRIAK?

## 1- JASANGARRITASUNA EKITALDIETAN

Saretuz-etik jasangarritasuna, zeharkakoa eta integratzailea den ikuspegi bat bezala ulertzen dugu eta kontsumo kontziente, arduratsua eta eraldatzailearekin batera, ekitaldiaren garapeneko prozesuan zehar edo fase desberdinetan garatutako jardueretatik eratorritako eraginak identifikatzen, kudeatzen eta ebaluatzen saiatzen da. Ekitaldiaren eraginaren identifikazio, kudeaketa eta ebaluazio lan honek prozesuarekiko eta ekitaldiaren fase desberdinekiko zeharkakoa izan behar du.

Testuinguru honetan, eta Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP) ekitaldi jasangarri bati buruz ematen duen definizioa oinarri, hau da "diseinatu, antolatu eta aurrera eramaten den hori da, ingurumen eragin negatiboak minimizatzea eta bizi den bertako komunitatearentzat ondare positiboa uztea helburu dituena" Saretuzetik, eta definizio honetatik haratago, jasangarritasuna, giza jardueren, gure ekoizpen eta erreprodukzio prozesuen eta garatzen ditugun habitaten denboran zeharreko iraunkortasuna, prozesu bakoitzaren bideragarritasunaren araberakoa dela ulertzen dugu, ekosistemen egonkortasuna kontuan izanik.


Zeharkako eta integratzailea den ikuspegi honetatik, testuinguru bakoitzak ezartzen dituen mugak eta baldintzatzaileak nola aztertu beharko diren jakin beharko da, ingurumenarekin sinbiosia eta zorientasun eta zaintza fase partekatuak ziurtatzen diren espazioak eta prozesuak eraikitzeko.

Zentzu honetan, ekitaldi jasangarriez hitz egiten dugunean, ekitaldi bat antolatu aurretik hausnartzeko beharraz ari gara bere eskalarekin (mugak) erlazionatutako hainbat gaien inguruan, antolatzen duten pertsonen artean eragin/sortu (baloreak eta emozioak) nahi diren giza erlazioak, baita ekitaldira bertaratzen diren pertsonen arteko erlazioak ere. Horrez gain, garrantzitsua da kontutan izatea ekitaldia ospatuko den ingurunea, beharrezkoak izango diren baliabide material eta energetikoak, baita sortu nahi den ondarea ere.

Helburua, beraz, aurreko atalean jasotzen den bezala, eragina kudeatzea da, bai negatiboa bai positiboa izan, aztarna ekologikoa murriztuz, oreka ekonomiko justu bat ziurtatuz, komunitateari eta tokiko inguruneari ematen dizkion aukerak aprobetxatuz eta praktikatik sentsibilizatuz eta heziz, bai ekitaldiak antolatzen dituzten pertsoneri bai ekitaldietan parte hartzen duten pertsoneri.

## 2- EKITALDIAREN FASEAK

Ekitaldi batean, jasangarritasuneko eta kontsumo arduratsuko irizpideak sartzeko eta barneratzeko prozesuak, prozesu guztiarekin lotuta joan behar du, kontzepzio/sorrera dinamikatik hasi, ekitaldiaren planifikazio eta antolakuntzatik pasa eta gauzatzea eta ebaluazio jarraia egiten den arte.



### 2.1- DISEINUA ETA PLANIFIKAZIOA

Hasierako etapa honetan, pertsona edo erakunde antolatzaileek, ospatuko den ekitaldiaren oinarriko ezaugarriak adosten dituzte. Ezin gaitezke etxea eraikitzen hasi teilatutik.

Ekitaldi beraren kontzepzioa egiten denean definitu behar dira helburuak eta hauek lortzeko gure eskura ditugun aukera guztiak balioztatzea, baita oztopo egiten dituzten faktoreak ere. Gure gaitasunetara hobekien egokitzen den jarduera mota eta errespetatu edo finkatu nahi ditugun irizpideak aukeratu behar ditugu. Non gauzatuko den pentsatu eta sortuko dituen eragin negatiboak eta positiboak balioztatu beharko ditugu. Horrez gain, fase honetan ere, kronogramak, beharrezkoak izango diren pertsonak eta aurrekontuak bezalako alderdi zehatzagoak definitu beharko dira. Fase honetan, presaren eta martxan hasteko gogoaren ondorioz hainbat gauza aintzat ez hartzea gerta daiteke. Baina hurrengo urratsak euskarrituko diren oinarria izango dela kontuan hartuta, beharrezkoa den garrantzia ematea merezi du.

Hasteko, antolakuntza talde guztia, beharraz eta hartuko den ereduaz konbentzita egotea ezinbestekoa da, kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuak zeintzuk izango diren eta hauek ebaluatzeko moduaren ibilbide orri bat ezarri.

Ekitaldiaren oinarriak definitzeko, aurreko esperientzien ikaskuntzak jasotzea oso baliagarria da, modu horretan akats posibleak errepikatzea ekidinez eta beste aldi batzuetan praktikan jarri diren irtenbideak aplikatuz. Hau egin ahal izateko, planifikazio fasean, ekitaldiaren amaierako

ebaluazio bat egitea posible egingo duten adierazleak definitu behar ditugu, baita, posible bada, jarraipeneko adierazleak. Azken hauek, hobekuntza proposamenak egiteko eta etorkizunean aplikatu ahal izateko oinarria izango dira.

Ekitaldi baten alderdi edo elementu nabarmenenak hautatzeko eta noraino iritsiko den definitzeko, gomendagarria da gertakari beraren fluxu-mapa edo diagrama marraztea. Hau da, kontuan hartu behar da edozein ekitaldik, ezinbestean, baliabide, materialak, erosketak, energia, ura... moduan sarrera multzo bat daramala eta emisio, isurpen, hondakin... bezala irteera multzo bat sortzen dituela.



Beste alde batetik, kontuan hartu behar da ere, ezartzen diren kudeaketa neurriek eta irizpide jasagarriek eragile desberdinen partaidetza eskatuko dutela, modu zuzen edo zeharkako modu batean inplikaturik egongo dira eta ondorioz, beraien lankidetzak eskatuko dira. Ekitaldiko eragile, aktore eta partaide desberdinak jasotzen diren soziograma bat gauzatzeak, lankidetzak horren bilaketan lagun dezake.



## 2.2- ANTOLAKUNTZA

Planifikazio fasean hartutako erabakiak eraginkor bihurtzeko unea da.

Talde antolatzaileak, ekitaldiaren diseinua eskuetan duela, edukiak programatuta eta behar material eta finantzarioak identifikatuta, ekitaldiaren antolakuntza eraginkorrari hasiera eman diezaioke. Une honetan, antzezleku alternatiboak ere planteatu beharko dira ekitaldia kanpoan ospatzea erabaki bada, euria aurreikusia badago edo beste edozein aldaketa edo ustekabeko gertatzen bada.

Horrela, hautaketa baldintzen definizioarekin eta zerbitzu, kontratazio eta erosketen hornitzaileen bilaketarako eta zehaztapenerako kontratazio irizpideekin has daiteke. Era berean, jasangarritasuna barneratzeko beharrezkoak diren planak definituko dira, horien artean, pertsonen eta zamen irisgarritasuna eta garraiobideak, hondakinen minimizazioa eta kudeaketa egokia, sexu indarkerien aurrean jarduera protokoloak, etab. Hori guztia "jasangarritasun plan" bakar batean barneratua izan daiteke. Beharrezkoa den kasuan, ekitaldiaren finantzaketaren bilaketa eta negoziazioa gehituko da ere.

Horrez gain, etapa honetan, ekitaldiaren komunikazio estrategia hasi beharko da, ekitaldiaren beraren jasangarritasunaren inguruan informatzeaz ahaztu gabe. Mezuak definituko dira, izango dituen euskarri desberdinak eta dagokion seinaletika asoziatua, erakargarriak izan daitezen eta pertsona antolatzaileen aldetik ezarritako helburuarekin koherenteak izatea bilatuz beti.

## 2.3- GAUZATZEA

Ekitaldia ospatzen/garutzen den etapa da, aurreko bi etapetan planifikatutako jarduerak ezartzen dira eta beharrezkoa izanez gero, ekitaldiaren instalazioetan muntaia eta desmuntatzea barneratzen dira.

Gauzatze fase honetan, ekitaldiaren diseinuan, planifikazioan eta antolakuntzan konfiguratutako jarduerak moduzuzenean finka daitezen lortu behar da. Horrez gain, garrantzitsua da ekitaldiaren ebaluazio eta eraginaren kuantifikazio faserako beharrezkoak diren informazioa eta datuak jasotzea, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak eta pertsonak jarriz. Horrek guztiak proiektuaren funtzionamenduaren jarraipena burutzea posible egingo du, jasangarritasunaren ikuspegitik.

Fase honetan, garrantzitsua da ere komunikazioa sendotzea, inplikatura dauden erakunde eta parte hartzen duten pertsona guztiek ekitaldiaren hasiera iristen denerako, ezarri diren jasangarritasun irizpideak ezagutzea ezinbestekoa izanik, uler dezaten eta bere aplikazioan inplika daitezen.

## 2.4- EBALUAZIOA

Ebaluazio fasea zeharkakoa da ekitaldiaren etapa guztietan eta era berean, ekitaldiari berari amaiera ematen dio. Ebaluazioak presente edo agerian egon behar du une oro, jasangarritasuna eta kontsumo kontziente, arduratsua eta eraldatzailea barneratzean indarra jarriz, ekitaldia osatzen duten alderdi guztietan.

Diseinua, martxan jartzea eta aurrera eraman behar den jarduera gauzatzearen prozesuan zehar bildutako informazio guztia, indar-guneak eta hobekuntza puntuak identifikatzeko landua izan beharko da, ikusezinak edo gutxiago kontuan hartuak izan diren edo erabat kontuan hartu ez diren beste alderdiak hautemateko izateaz gain.

Planifikazio fasean marraztutako fluxu-diagrama eta soziograma berriz ere mahai gainean jartzeak, kontuan hartu ez diren alderdi edo hauteman ez diren eragile posibleez jabetzeko balio du ere, ekitaldiaren ebaluazioan bertan eta balioztatzean laguntzeaz gainera.

Behin fase hau amaitu denean, lortutako emaitzak komunikatu behar dira jasangarritasunari dagokionez eta emaitzak, parte hartu duten pertsoneri edo interes taldeei bidaltzeak, ezarritako jasangarritasun helburuei dagokionez eta ekitaldia horren edukiari berari dagokionez, sentsibilizazioan jarraitzea posible egingo du.

## 2.5- KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa ekitaldi guztian dagoen zeharkako ardatza da, baita tresna garrantzitsuena ere, ekitaldiaren antolakuntzan eta garapenean parte hartzen duten pertsona guztiak komunikatu nahi den mezuarekin lerrokatuta egoteko.

Jasangarritasunaren mezua publikoarengana iristea lortzeko, kohesionatutako komunikazio estrategia bat ezarri behar da, aldi bateko programazio batekin batera. Komunikazio plan edo programa honek ondorengo galderei erantzun behar die:

- ▶ Zer nahi dugu komunikatu? Azken helburua.
- ▶ Nola nahi dugu komunikatu? Ekintza plana.
- ▶ Zergatik nahi dugu burutu ekitaldi hau? Oinarriak.
- ▶ Zertarako nahi dugu gauzatu? Lortu nahi diren helburuak.
- ▶ Noiz eta non gauzatu da? Kokapena eta data.
- ▶ Nori dago zuzenduta ekitaldia? Publikoa.

Komunikazio estrategian, baita ekitaldian bertan dauden mezuetan ere, hizkuntza ez sexista baten erabilera kontuan hartu beharko da.



### 3- EKITALDI BATEN EZAUGARRIAK

Kultur hezkuntza, sozial, ekonomiko eta ingurumen ezaugarrien identifikazioa, ekitaldiaren hasierako kontzepzioan egin beharko da gutxienez modu generiko batean, identifikatutako irizpide edo ezaugarriek ekitaldia ez gauzatzea aholkatzen badute; edo mailakatua, eta planifikazio eta antolakuntza faseetan zehar, baita ekitaldiaren prozesuan eta garapenean zehar hauteman daitezkeen ezaugarriak identifikatzea ere.

Saretuzetik iruditzen zaigu ondorengoak direla kontuan izan behar diren ezaugarriak:

3.1- KULTUR HEZKUNTZA EZAUGARRIAK

3.2- EZAUGARRI SOZIALAK

3.3- EZAUGARRI EKONOMIKOAK

3.4- INGURUMEN EZAUGARRIAK

**Ekitaldi bat antolatzerakoan kontuan hartu beharreko ezaugarrien artean ez dugu generoa lantzen duen atal berezi bat sortu ezaugarri desberdinen barnean zeharka lantzea nahiago izan dugulako. Horrela, Saretuzetik azpimarratu nahi dugu ez ditugula betaurreko moreak kendu behar segurtasun baldintzak, parte hartzeko aukerak edo genero aniztasuna eskaintzan aztertzen dugunean adibidez.**

#### 3.1- KULTUR HEZKUNTZA EZAUGARRIAK

XXI mendearen hasieran arreta gehien eskatzen duen gaietako bat, krisi ekologikoa da, planetan giza bizitzaren jarraipenerako mehatxu larri bat. Komunitate zientifikoak eta oso desberdinak diren diziplinetatik, bat egiten dute beraien azterketetan eta bizitza jasateko Lurrak duen gaitasuna alda dezaketen ingurumen eraldaketa multzo baten inguruan behin eta berriz ohartarazten dute.

Baina horrez gain, baloreen krisiaz ere hitz egin behar dugu, adierazpen moduak eta errepresentazio sinbolikoa. Egungo gizartearen eguneroko bilakaera euskarritzen duten hautemateko eta antolakuntzako moduak, "krisi zibilizatzailea" dei genezakeen horretan zalantzan jartzen dira. Ikuspegi honetatik, kultura, giza espeziearen erlazioen eta naturarekin duten sistema sozio-ekonomikoen dimentsio global bezala, eredu produktiboago eta jasangarriagoak diren habitat horien beharrezko trantsizioa geldiarazteko edo azkartzeko ezinbesteko faktore bat da. Zerbaiten aldeko edo kontrako posizioek, sinesmenak eta bizipen emozionalak, giza portaeren adierazpenak dira eta kultura osatzen duten baloreen adierazpena. Kultura eta giza portaera hauek, gure gizartean egunero gertatzen diren ingurumen eragin edo inpaktu askoren zergatia eta jatorria dira.

Modu honetan, planetaren egungo egoera sakontasunez lantzea eta bere kontserbazioan erantzukizunak hartzea, arazoaren dimentsio kulturala onartzea eskatzen du eta ondorioz, erresilientzien eraikuntza eta garapena, sormena eta aniztasunaren onartzeari lotutako baloreak, biozentrismoa, ekitatea edo etorkizuneko belaunaldien eskubideak.

Atal honetan, gure jarduerak antolatzeko garaian Saretuz-etik garrantzitsuak direla uste dugun hainbat ideia planteatzen ditugu. Ideia hauek, kultura eta pertsonen erlazioko ikuspegitik jasangarriagoak diren ekitaldiak planteatzen lagun diezagukete.

## ZER BALORE NAHI DITUGU TRANSMITITU?

Ekintza bat bere barnean balore batzuk dituen jarduera bat da, jokabide eta jarrera arauak dira eta hauen arabera da gure portaera. Ondorioz, gure ekintzak transmititu nahi ditugun balore horiekin kontsekuente izatea garrantzitsua da. Saretuzetik, elkarrizketa, partaidetza, berdintasuna, erantzukizuna, errespetua, justiziaren, etab. alde egiten duten ekitaldi jasangarri batzuen alde apustu egiten da. Jarduera edo ekitaldi bakoitzean lehentasuna ematen diren baloreez gain, balore hauek edozein egoeratan ezinbestekoak dira.

Kontutan hartu beharreko puntuetako bat errespetua da. Ezinbestekoa da ekitaldian parte hartzen duten pertsona guztiei errespetua ematea, era berean, ekitaldia ospatuko den tokiko komunitatearekiko errespetua izan behar dugu.

Burutuko den jardueraren izaeraren arabera, zuzenean parte hartzen ez duen komunitate bat egon daiteke, baina zeharkako moduan eragin diezaioke (espazioa okupatzea, zarata...). Horregatik, garrantzitsua da jakinaraztea, ekitaldia ospatu aurretik informazioa emanaz, ekitaldiaren inguruko informazioa izan dezaten eta elkarbizitza egoki bat izateko ekarpenak egin ditzaten, edo ekitaldian bertan keinuak eginez. Pertsona hauengana iristeko modu praktiko bat, auzo elkarteko ohiko bilera batera joatea izan daiteke, bertan informazioa zabaltzeko eta beraien konplizitatea bilatzeko, baita inguruko dendaz denda ibiltzea ere.

Ezinbestekoa den beste alderdi bat, pertsona guztien partaidetza ziurtatzea da. Horretarako partaidetza espazioak eta uneak egon behar dira, metodologia parte-hartzaileak erabili, etab. Alderdi honen garrantzia nabarmentzeko, garrantzitsua da bertan dauden pertsona guztien iritziak eta iradokizunak jasotzea, norbanakoaren edo taldeko ekarpen hori ondare bezala gelditzeko eta etorkizuneko ekitaldi baterako balio izateko helburuarekin. Iritzi eta iradokizun bilketa modu askotan egin daiteke, egon daitezkeen ekitaldi desberdin bezainbeste.



## ESPAZIOA GARRANTZITSUA DA.

Ekitaldi bat ospatzen den espazioa, errazten duen espazio bat izan behar du eta era berean, hezitzailea. Aterpe bezala erabil daitekeen ingurune sozial eta fisiko bat, estimuluen, gizarte interakzioen, etab. iturri, pertsona guztiak eroso sentitzen diren espazio bat.

Gure ekitaldia garatuko den espazioa ongi hautatzea garrantzitsua da, baina kontutan hartu behar da ere espazioen kokalekua eta disposizioa eta leku horretan dauden elementuak, helburuen arabera edo ingurune bakoitzaren funtzionalitatearen arabera.

Zentzu honetan, dekorazio elementuei eta hauek transmititzen duten mezuari arreta jarri behar zaio. Elementu bakoitza hezkuntza baliabide bezala erabil daiteke, erabaki bakoitzaren, bertan dagoen objektu eta hutsune bakoitzaren zergatia azalduz.

Jarduera luzeen kasuan, helburu desberdinak dituzten hainbat inguru ezartzea garrantzitsua da, laneko lekuak, atsedeen lekuak, etab. Horrela, partaide bakoitzaren erritmoak errespetatzea posible izango da, saturazio edo neke sentsazioak ekidinez. Adibidez, atsedenerako altzari erosoak dituzten espazioak interesgarriak dira, irakurketa txokoak aldizkariekin eta informazio-foiletokin, jarduera nagusiarekin osagarri diren erakusketa-espazioak, etab.

## URA BEZAIN GARDENA.

Kontraesanetan ez erortzeko eta koherenteak izateko, Saretuzentzat funtsezkoa da galdetzea zein den garatu behar den jardueraren objektua, hau da, jarduera nori dagoen zuzendua edo zein publiko erakarri nahi den, komunikazioarekin edo jardueraren antolakuntzarekin hasi aurretik. Jardueraren diseinuan bertan erabili beharko den komunikazio diskurtsoa, hizkuntza honen menpe egongo da.

Lehenik eta behin, transmititu nahi den mezuarekin koherenteena den formatua erabaki behar da. Saretuzen ikuspuntutik, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile batez edo justuagoa den ingurune bat eraikitzeke proposamenez hitz egiteak ez du zentzurik, baliabideen eta espazioen xahutze erduetan oinarritzen bagara. Eredu hauek gainera, giza esfortzu handi bat eskatzen dute. Ekitaldiaren eskala mezuarekin adostasunean joan behar du, pertsonen eta ingurunearen zaintza alde batera utzi gabe.

**Saretuzen ikuspuntutik, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile batez edo justuagoa den ingurune bat eraikitzeke proposamenez hitz egiteak ez du zentzurik, baliabideen eta espazioen xahutze erduetan oinarritzen bagara.**

Garrantzitsua da ere, hizkuntza, jarduerako publikoaren arabera egokitzea, bai komunikazio diskurtsoan bai ekitaldiaren beraren edukietan. Landuko den gaiarekin erlazionatuta dauden pertsonen zuzendutako jarduera bat bada, hizkuntza teknikoago bat erabil izango dugu, baina helburua ahalik eta pertsona kopuru handiena erakartzea eta kuriositatea sortzea bada, hizkuntza unibertsalago eta errazago bat erabili beharko dugu. Horrez gain, Saretuz-etik mezu baikorrak, deigarriak eta sormenezko mezuak erabiltzea eta eskemak haustea gomendatzen dugu, gure ekitaldia aldekoa izan dadin. Izenburuan edo azalpenean ulertzen ez dituzun bi hitz baino gehiago dituen ekitaldi batera joango al zinateke?

## BABELEKO DORREAN EROSO.

Ekitaldi batean hainbat komunitate linguistiko aurki ditzakegu eta hizkuntza desberdinetan adierazten diren pertsonekin aurki gaitzake. Saretuz-en hau aukera bat bezala ikusten dugu, gure jarduera aberastu dezakeen kultura aniztasun handiago bat izan daitekeelako, ikuspuntu iritzi eta ideia desberdin gehiagorekin. Horrez gain, hizkuntza gehienetan komunikaziorako

beharrezkoa da eta xehetasun asko galduko genituzke, pertsona bakoitzak ezingo balu eroso sentitzen den hizkuntza batean hitz egin, ondorioz, bere eskubide linguistikoak bermatu beharko ditugu.

Tresna edo metodo desberdinak existitzen dira, horien artean: Interpret itzulpen aplikazioa, txutxu-mutxuaren teknika, hizkuntzagatik berezitako taldeetan lan egitea, etab. parte hartzen duten pertsonak erosen sentitzen diren hizkuntza horretan adieraz daitezen.

Testuinguru honetan, ekitaldiarekin erlazionatutako komunikazio guztia, bai aho komunikazioa bai beste euskarrietan egindako komunikazioa, kartelen edo seinaleen bidezkoa bezala, jardueran parte hartuko duten pertsonak komunikatzeko erabiliko duten edo ekitaldi horrekin erakarri nahi ditugun pertsona horiek hitz egin dezaketen hizkuntza guztietan izaten saiatu behar da.

Tokiko errealitate linguistikoa kontuan hartu behar da eta jardueraren aktoreen artean (hizlariak, abeslariak, dinamizatzaileak...) oreka bat egon dadin saiatu behar da, bere hizkuntzan adierazten direla ziurtatuz eta tokiko hizkuntza guztiak bertan daudela bermatuz.

### ARRASTOA UTZIZ.

Ekitaldi guztiek arrastoa uzten dute, baina ondare hau ez dute nahikoa kontuan hartzen, planifikazio, antolakuntza, exekuzio eta ebaluazio prozesuetako pertsona antolatzaileek. Ondarea positiboa edo negatiboa izan daiteke, ukigarriak edo ukiezinak eta mota oso desberdinekoak (kulturala, ingurumenekoa, urbanistikoa, soziala, etab.).

Horretarako hurrengo galdera egin behar dugu, zer eramaten dugu hemendik? Edo ekitaldi honetako parte hartzaileek zer eramaten dute?, baita gure jarduera burutu dugun pertsonen eta inguruneari itzulketa bat egitea.

“Egin dugu eta hor konpon!” sentsazioa ekidin behar da, hurrengo edo etorkizuneko helburuak zehaztuz, sare eta aliantza berriak sortuz eta espazioan eta ekitaldian zuzenean parte hartu gabe bere eraginak jasan dituzten pertsonen egunerokotasunean nolabaiteko hobekuntza bat ahaleginduz edo gure proiektuagatik beraien interesa eta sinpatia bilatuz.

### 3.2- EZAUGARRI SOZIALAK

Atal honetan, pertsonen zaintza eta ongizatea ziurtatzeko helburuarekin kontutan hartu beharreko gai horien inguruan dei egin nahi dugu, ekitaldia prestatzen eta antolatzen duten pertsonen erlazioak eta beharrak hasieratik entzunez, baita ekitaldira bertaratuko diren pertsona desberdinen beharrak ere. Modu honetan, gauza desberdin asko hartu behar dira kontutan.

**Ekitaldia antolatzeko lan saioek distentsio uneak izatea garrantzitsua da, bai lan saioetan zehar bai amaieran, baita konpondu gabeko gairik ez gelditzea ere modu honetan tentsioak edo ondorez sor ditzaketen gaizki ulertu posibleakekidinez.**

Baldintza hauek, ekitaldia sortzen den une horretan barneratu behar dira. Berdintasunarekin eta genero barietateekin erlazionatutako alderdiak izango dira, edo adin eta baldintza aniztasunarekin erlazionatutakoak. Hau da, diskriminazio ezarekin, eta hasieratik, ekitaldia diseinatzea giza aniztasuna, gizarteratzea eta berdintasuna kontutan hartuz, irisgarritasun unibertsal bat ziurtatuz. Antolakuntza prozesuak eta ekitaldia bera, gizarteratzeko printzipioetan oinarritu behar dira, norbanakoaren autonomia eta ahulenak diren gizarte taldeen sarrera librea eta pertsona guztien segurtasuna posible eginez, segurtasunaren ordezkoa baretasunaren estasia ez dela kontziente izanez, asperraldiaren maldizioa baizik. Erronka etiko bat izateaz gain, sormenezko erronka bat.

## ONDO BAINO HOBETO.

Edozein motako ekitaldia antolatzekeo garaian, gure jardueraren azken helburuak lortzeko ahalegin horrek, prozesuan zehar taldearen ongizatea alde batera uztea egin dezake, askotan. Saretuz-etik pertsonen zaintzaren garrantzia nabarmendu nahi da, bai antolatzaileak bai parte hartzaileak, eraginkortasunaren eta gozatzearen arteko oreka bat bilatuz, baita modu kolektiboan ikasteko aukerari ihes egiten utzi gabe ere.

Horretarako, ekitaldia antolatzekeo lan saioek distentsio uneak izatea garrantzitsua da, bai lan saioetan zehar bai amaieran, baita konpondu gabeko gairik ez gelditzea ere, modu honetan tentsioak edo ondoezak sor ditzaketen gaizki ulertu posibleak ekidinez. Baliagarri izan daitezkeen dinamika asko daude, mugimendu edo erlaxazio dinamikak bezala. Kasu bakoitzaren arabera, interesgarria izan daiteke ere, bileren eta antolakuntza prozesuaren ongi joatea ziurtatzen duten pertsona behatzaile bat edo batzuk hautatzea.



## LAGUNTZEN.

Zereginak eta erantzukizunak banatzen, erantzukizun gehien eskatzen duten alderdiak beti pertsona gutxi batzuek hartzea ekiditea bilatzen da, lidergo egoera negatiboak edo nahi ez direnak ekidinez, baita gainkarga egoerak ere. Erantzukizunak txandakatzeak, edo lanak pertsona bat baino gehiagoko batzordeetan banatzeak, helburu hau lortzen lagun diezaguke.

Era berean, beharrezkoa da baldintzak sortzea, pertsonak beraien errealitate pertsonala eta jarduera baten antolakuntzan edo jarduera batez gozatzen parte hartzearekin bateragarri egiteko.

Zailtasun nagusienak, zaintzen erantzukizunak, lan orduak edo beste mota bateko norberaren konpromisoak izaten dira, ondorioz, kontuan hartu beharko lirarteke, adibidez, ordutegiak, topalekuak, irisgarritasuna... Egoera hauek arindu dezaketzen praktika bat ordutegi-tarteen txandaketa edo zaintzarako espazio paraleloak sortzea izan daiteke, adibidez, jolas eta esku-lanak egiteko leku seguru eta konfiantzako leku bat.

## ABERASTASUNA DESBERDINTASUNEAN DAGO.

Desberdintasunak, bai antolakuntza prozesua bai garatu nahi dugun jarduera aberasten ditu, beraz, garrantzitsua da egokiak diren baldintzak sortzea, pertsona guztiek parte hartu ahal izateko.

Pertsona bakoitzak dituen gaitasunak ezagutzea da, bakoitza bere berezitasunean, bere borondatea eta erritmoa errespetatuz, eta pertsona bakoitza protagonista izatea sustatuz. Aniztasuna onartzea, ekitaldi bat antolatzeke eta ospatzeko prozesuarekin uztartu behar da, hau da, horretaz kontziente izan behar da, bai lantaldea osatzen duten pertsonen artean bai parte hartzen duten pertsonen artean.

## OZTOPOAK GAINDITZEN.

Egun irisgarritasun kontzeptuaz hitz egiten denean, ez dira soilik oztopo arkitektonikoez eta urbanistikoez ari, beste hainbat alderdi ere biltzen ditu irisgarritasunak: garraioa, hezkuntza, kirola, aisia, kultura, komunikazioa, etxebizitza, etab. Ekitaldi bat antolatzen denean alderdi hauek kontuan hartzea garrantzitsua da, ekitaldian parte hartu nahi duten pertsona guztien sarrera edo bertaratzea bermatzeko.

**Arau nagusi bezala, interesgarria da garraio publiko bitartez, oinez edo bizikletaz iritsi ahal izatea, modurik jasangarrienak eta pertsona guztientzat eskuragarri direlako.**

Ekitaldiko antolakuntzaren erantzukizuna da, ekitaldia ospatuko den ingurunea egokitzea edo beharrezkoa den kasuan aldatzea, bertaratuko diren pertsona guztiek baldintza berdinetan erabiltzeko aukera izan dezaten.

Irisgarritasun unibertsalaz hitz egiten dugunean, inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete behar dituzten baldintzez ari gara, baita pertsona guztientzat ulergarri, erabilgarri eta baliagarri izateko objektu edo instrumentu, tresna eta gailuak ere, segurtasun eta erosotasun baldintzetan eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean.

Arau nagusi bezala, interesgarria da garraio publiko bitartez, oinez edo bizikletaz iritsi ahal izatea, modurik jasangarrienak eta pertsona guztientzat eskuragarri direlako. Ekitaldiaren komunikazioetan, aukera posibleen inguruko informazioa modu argian jartzea gomendagarria da. Garraio zerbitzu publikorik egon ezean, autoa partekatzeko proposamena aukera egokia da, interes berberak dituzten beste pertsonekin erlazioak finkatzen laguntzen duelako.

Horrez gain, seinaletikak eta komunikazioek uler errazak izan behar dute, baita edozein motako zailtasunak dituzten pertsonentzat ere, pertsonen funtzio-gaitasunen aniztasuna kontuan izanik. Ondorioz, hizkuntza erraz eta zuzen bat erabiltzea, baita piktogramak erabiltzea ere, gure mezua argiagoa eta ulergarriagoa izaten lagunduko du. Zailtasunak dituzten pertsona haiengan, gaitasun fisikoak (ikusmena, entzumena, mugikortasuna, etab.) edo gaitasun kognitiboak mugatuta dituzten pertsonengan pentsatuz diseinatzeko gai bagara, pertsona guztientzat habitat hobeago bat sortzen laguntzen egongo gara.

## SAIHESTU, SENDATU BAINO HOBETO.

Edozein motako ekitaldi batean, arrisku eta segurtasun ezeko egoerak daramaten faktoreak saihestu behar dira istripuak ekiditeko, bai antolatzaileena bai parte hartzaileena, baita gatazka desberdinak ere, arreta berezia jarriz sexu indarkeriei.

Ekitaldiak nolabaiteko arriskuko lanak egitea eskatzen badu, ekipamendu egoki bat izateak min hartzea edo lesioak ekiditea lagunduko digu. Era berean, azalera ezegonkorrak, irristakorrak



edo ertzak dituzten elementuak, kableatua edo ongi adierazita ez dagoen eta istripuak sorrarazi dezaketen edozein motako oztopoak ekidin behar dira. Horrez gain, produktu kimikoen, sukoiaren, etab. erabilera ekidin egingo da.

Sexu erasoaren prebentzioari dagokionez, bai beste izaerako erasoari dagokionez, argiztatze egoki bat bermatu behar dugu, leku isolatuak ekidin, etab. Era berean, jarduerako erantzun azkarreko protokolo bat bermatu behar dugu. Egoera hauek dimentsio handiko ekitaldietan maizago gertatzen diren arren, kontu handia jarri behar da edozein motako jardueretan.

Ekonomia ez da zenbakiak bakarrik. Saretuz-en dimentsio ekonomikoaren jasangarritasunaz hitz egiten dugunean, tokiko ekonomia bat sustatzeaz hitz egiten dugu, kolaborazioko lan batetik eta ekonomia solidario batetik abiatuz, pertsonak eta bizitzaren jasangarritasuna onurak lortzeki gorago dagoen ekonomia bat.

### 3.3- EZAUGARRI EKONOMIKOAK

#### EROSKETAK EGITERA GOAZ.

Ekitaldi batean, garrantzia gehiago edo gutxiago duen batean, produktuen eta zerbitzuen kontsumoa ezinbestekoa izan daiteke, baina horregatik ezin zaio erne egoteari utzi behar. Produktuak eta materialak eskuratzeko garaian, planteatu behar den lehenengo galdera hau da, beharrezkoa al da? Erantzuna baiezkoa denean, elkar trukaketa edo lagatze baten bitartez eskuratzeko aukera dugun pentsatu beharko dugu, edo bigarren eskua eta berrerabiltzea bezalako alternatibak bilatu beharko ditugu.



Aukera bakarra erostea bada, hainbat irizpide hartu behar dira kontutan: jatorria eta gertutasuna, kalitatea, bere ekoizpen eta elaborazio fasean sortzen dituen ingurumen eta gizarte ondorioak, bilgarria, funtzionamendua, iraupena eta mantenua eta ondoren egiten den kudeaketa. Hau guztia kontuan hartuta, berrerabilitako edota berrerabiliak izan daitezkeen produktuak eta materialak hautatzera eramaten gaitu, eta ahal den neurrian, bertakoak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak.

Era berean, ekitaldi baterako hornitzaileen eta kontratatutako enpresen hautaketak, irizpide energetikoak, sozialak eta generoari eta ingurumenari dagozkionak barneratu behar ditu. Aukeraketa hau egiten laguntzen diguten, irizpide jasangarriak dituztela adierazten duten ziurtagiriak dituzten enpresak geroz eta gehiago dira. Horrez gain, erakunde desberdinek, bai produktuak bai merkaturatzen dituzten enpresen jasangarritasun irizpideak baloratzen diren

txostenak dituzte. Era berean, egindako lana arintzen duten tokikoagoak diren beste formatu edo lanak dituzte, adibidez, Saretuz-ek burututako kontsumo arduratsu bat egitea posible den lekuen mapa ([www.mapasaretuz.eus](http://www.mapasaretuz.eus)).

Bilaketa eta hautaketa esfortzu hau egin ondoren, gomendagarria da pertsona parte hartzaileei ikustera ematea, ahal den neurrian, hautatutako produktu edo zerbitzuen ezaugarrien inguruan informatuz, aurrez aurre edo ekitaldiaren inguruan egiten den komunikazioetan. Adibidez, elikagaiak eskaintzen diren kasuan, ekoizleak adierazita dauden mapa bat aurkez daiteke.

### ZER PREZIO JARRIKO DIOGU?

Antolatuko dugun ekitaldiaren arabera, ekitaldiaren beraren finantzaketarako, sarrerak edo tiketak jarri beharko ditugu salgai agian, hainbat material eta produktuz gain.

Testuinguru honetan, prezio justu eta eskuragarri bat bilatzea gomendagarria da pertsona parte-hartzaileentzat edo ekitaldira bertaratuko diren pertsonentzat. Kontuan hartu behar da ekitaldia nori zuzentzen zaion, eta pertsona horietako bakoitzak dituen zailtasun ekonomikoak. Egoera hauen aurrean, gomendagarria da salneurri desberdinak eskaintzeko aukera kontuan hartzea, adibidez, adina edo lan baldintzen arabera edo doakotasuna kasu zehatzetarako edo truke edo zerbitzu bidezko ordainketa.

### TXANPONAREN BESTE AURPEGIA.

Ekitaldi gehienetan aurrekontua izaten dugu, gehiago edo gutxiago, baina izaten dugu. Diru hori kontu korrante batean sartzan dugu eta gure jardueran aplikatu nahi ditugun jasagarritasun irizpideak jarraituz, diru hori bankuan gordeta egoteak zer esan nahi duen eta zer ondorio dituen jakitea garrantzitsua da.

Banka etikoa eta finantza alternatiboen ekimenekin, oinarrizko printzipio bezala gardentasuna dutelarik, gure diruarekin zer egiten den jakin dezakegu. Finantza etikoak eraldaketarako tresna bat dira, bertan inbertsioko gure lehentasunak adierazteko aukera dugu, bai proiektu sozialetan, ekologikoetan, kulturaletan, etab.

**Kontuan hartu behar da ekitaldia nori zuzentzen zaion, eta pertsona horietako bakoitzak dituen zailtasun ekonomikoak. Egoera hauen aurrean, gomendagarria da salneurri desberdinak eskaintzeko aukera kontuan hartzea, adibidez, adina edo lan baldintzen arabera edo doakotasuna kasu zehatzetarako edo truke edo zerbitzu bidezko ordainketa**

## 3.4- INGURUMEN EZAUGARRIAK

“No queremos un medio ambiente, queremos un ambiente entero”. Premisa hau baieztapen axiomatiko bat da eraldaketa sozioekonomiko sakoneko orainaldi batean; krisi eta aldaketa esanguratsuak dituen antzezleku batean; planetako baliabide materialen amaiera bezalako edo egungo prozesu demografiko-migratzaile, zientifiko-tekniko, geostrategiko, kultural edo informazio eta komunikazioaren munduko prozesuak bezalako, elkarren artean konektatuta dauden hain desberdinak diren eremuetan.

Testuinguru honetan, gizarte edo administrazio esku-hartzeko lurralde eremu bakoitzean, planetako muga ekologikoen eta bizitza sistemen gainezko egite globala kontuan hartzea garrantzitsua da eta zentzu honetan, baita materialen eta energiaren erabilera eta kontsumoa ere.

Era berean, hondakin likido, gaseoso edo material hondakinen ekoizpena edo argi-, elektromagnetiko- edo entzunezko-kutsadura beste modu batzuk kontutan hartu behar dira; energia kontsumoa eta bere iturriak faktore "inguratzailerik" bat direlarik. Ingurumen bektoreengatik sailkatuta dauden alderdi hauek guztiak hausnartzea/birplanteatzea/pentsatzea planteatzen dugu, edozein ekintza edo jarduera bat antolatzeke garaian, pertsonak elkartzen eta deitzen direnean.



## NON GAUDE.

Ekitaldia sortzen hasten denetik, hau da, ekitaldiaren hasieratik bertatik, ekitaldia garatuko den lekua kontutan hartu behar da, jarduerak okupatuko duen espazioa, baita non gauzatuko den eremua edo ingurunea ere.

Ez da berdina, dagoeneko finkatuta dagoen hiriko espazio bat, plaza bat, eraikuntza bat edo hiriko ibilbide bat izan, edo espazio natural edo hiri kanpoko espazio bat izan, intereseko zona naturalei eragin posibleak aurreikusteko, landaretzari kalteak minimizatzeko, higadura-prozesuen azelerazio ezean arreta jartzeko helburuarekin. Ildo horretatik, une oro kontuan hartu behar den alderdi bat, ekitaldia ospatuko den lekuaren irisgarritasuna da eta bertaratzeko dauden garraio bideak.

Horrez gain, instalatuko diren ekipamenduen hautaketa egokia egin behar da, ahal den neurrian, ingurumen irizpideak betez, energiari, ur kontsumoari, hondakinen, isurien eta emisioen (atmosfera-koak, akustikoak, usaintsuak, argi-emisioak) sorrerari, edo materialen hautaketa egokiari dagokionez.

Azkenik, ekipamendu guztiak kendu direnean, okupatutako zona guztiak berriztatzea kontuan hartu behar da. Ekitaldian erabilitako zona bere hasierako egoerara itzuli behar da, are gehiago, hasierako baldintzak hobetzeko aukera balioztatzea behar da, hobekuntza neurri bezala, espazio zehatz horren sormenezko ekarpen, ekarpen kultural edo funtzional bezala.

Ekitaldi bat leku batean baino gehiagotan gauzatzen bada, kudeaketaren konplexutasuna izugarri handitzen da, kokalekuen gehitzeak, horietako bakoitza modu individualizatu batean aztertu beharra eskatzen duelako; eta sinergia posibleak (eragin positibo edota negatiboekin) handitzen dira, baita denborazkotasuna ere, biltegiak, hornidurak edo logistikarekin erlazionatutako beste alderdi batzuk handitzea posible delako.

## ENERGIA POSITIBOA.

Zentzu zabal batean hitz eginez, edozein ekitaldi mugitzen duen ardatza, sortutako energia izango da, instalazioen argiztapeneko beharretik, klimatizazioa, garraiotik... hasi eta maila sakon batera iritsi arte, ekitaldi horren garapena posible egiten duten edo instalazio bat kudeatzen duten pertsonengatik datorren energia.

Energia hauek guztiak ez dira jarduera bakar batean eratorriko (azken helburua izanik, gauzatu behar den ekitaldia), ekidin ezin diren modu batean, mota desberdinetako eragin batzuk sortuko dituzte, bai negatiboak bai positiboak. Laburbilduz, energiaren aurrezkian eta kontsumoan eraginkortasuna bilatzen da.

Ondorioz, energia kontsumoa nola gutxitu behar den kontuan hartu behar da eta ekitaldiaren sorreran bertan eta eraikuntzan barneratu, behar bakoitza modu desberdindu batean kontuan hartuz. Adibidez, potentzia beharra, kasu batean elikagaiak hotzak mantentzeko, edo espazioaren soinua jartzeko, etab. baita ordutegiak eta urtaroak ere, eguzki-argia hobeto aprobetxatzeko.

Kontuan hartu behar den beste aukera bat auto-hornikuntza da, bai eguzkikoa, fotovoltaikoa edo termikoa, eolikoa... eman behar diren zerbitzu horietako baterako. Hornidura kontratatzea hautatzen den kasuan, posible bada, energia berriztagarria merkaturatzen duen kooperatiba batekin egitea. Generadoreak erabili behar diren kasuetan, gomendagarria da ere, hauek erregaiez elikatzen direnak ez izatea. Sare elektrikora konexio bat egiteak gutxiago kutsatzen du eta soinua gutxiago sortzen du.

## URETARA!

Uraren kontsumoan aurreztea eta gutxiagotzea da helburua, baita sortzen diren isurien prebentzioa eta kontrola ere.

Uraren kalitatea ona den lekuetan, kontsumorako ura bada sareko ura erabiltzea gomendagarria da, hondakinen sorrera ekidin egingo dugulako bereziki, baita garraioa ere.

Iraupen luzeko edo ura beharko duen ondare bat uzten duten jardueren kasuan, euri ura jasotzen duten ontziak jartzea balioztatu daiteke, garbiketarako, ureztatzeko... erabiltzeko. Era berean, uraren hornikuntza ez dagoen lekuetan beharrari aurre har diezaiokegu, hauetako ontzi bat aldeztatik tokian bertan kokatuz.

**Ondoren berrerabiliak izan daitezkeen beharrezkoak diren egitura motako material horiek kontutan hartu behar dira, egiturak, mahaiak kartelak, pankartak, etab. bezalako materialetatik hasi eta edalontziak, sokak, etab. bezalako beste elementuetaraino.**

Edozein kasutan, sareko ura edo berrerabilitako ura erabiltzen dugu. Hala ere, garrantzitsua da pertsonen gogoraraztea gomendioen edo praktika egokien bitartez, uraren erabilera egoki bat egitea, ez xahutzea, modu horretan kontsumoa gutxituz, baita isurpenen kopurua ere, ingurune naturalera iritsi aurretik modu batean zein bestean kudeatu behar direlarik.

Isurpenak kudeatzeko modurik errazena, betiere arriskutsuak ez direnean, saneamendu sarera zuzentzeko moduren batean bideratzea da. Ekitaldia, aukera hau ez dugun ingurune batean gauzatzen bada, isurpen horiek jasotzeko eta ondoren egin beharko den tratamendurako neurriak hartu beharko dira.

## ZABORRA ARAKATUZ.

Hondakin onena sortzen ez den hori da. Zentzu honetan, materialen eta produktuen behar konkretuetan pentsatu behar da, baita hauen ontziratzea, jatorria, etab. ere. Horrez gain, ondoren berrerabiliak izan daitezkeen beharrezkoak diren egitura motako material horiek kontuan hartu behar dira, egiturak, mahaiak, kartelak, pankartak, etab. bezalako materialetatik hasi eta edalontziak, sokak, etab. bezalako beste elementuetaraino.

Minimizazio irizpide berdina izan behar da kontuan, ekitaldiaren inguruan burutuko den aurretiko informazioan eta difusioan, ekitaldiaren beraren difusio digitalari lehentasuna emanez, eta kartelak edo bestelako paperezko komunikazioa beharrezkoa den kasuan, hauek paper ekologikoan eta inpresioa ingurumen irizpideak jarraituz izatea.

Horrez gain, ekitaldiak beharrezkoak dituen azpiegitura guztiak izan beharko ditu, botatzea aurreikusita dauden material zati guztiak modu zuzenean banatzeko. Gehien erabiltzen direnak ontzi arinak, papera eta kartoia, beira, materia organikoa eta errefusera bideratutako beste material desberdinak ere (berrerabili edo birziklatu ezin direnak), zigarro-puntak, konpresak, pardelak, etab. Interesgarria izan daiteke beste zenbait bilketa gune jartzea, antolatzen dugun ekitaldi motaren arabera zehatzagoak diren beste elementu batzuk berreskuratzeko edo kudeatzeko, adibidez, lasterketa bateko dortsalen kateorrazak, antolakuntzatik bana daitezkeen dekorazio elementuak, etab.

Edozein ekitalditan erabil daitezkeen beste zenbait elementu eta produktu kontuan hartu behar dira ere, horien artean: pilak, garbiketa produktuak, tresna elektrikoak edo etxeko tresna elektrikoak, altzariak, etab. Horietako bakoitza banatuta hautatu behar dira eta lekuan dagoen gune-berdean edo garbi-gunean utzi.

**Ekitaldian sariak edo sustapen artikulua erabiltzen diren kasuetan, hauek izaera immaterialeko objektuak izan daitezkeen saiatu behar da. Horrela izan ezean, hauen aztarna ekologikoa ahalik eta baxuena izatea bilatu behar da. Aldi berean, erabiliak izateko balio izatea, ez berehala hondakinean bihurtuko den zerbait.**

Ekitaldian sariak edo sustapen artikulua erabiltzen diren kasuetan, hauek izaera immaterialeko objektuak izan daitezkeen saiatu behar da. Horrela izan ezean, hauen aztarna ekologikoa ahalik eta baxuena izatea bilatu behar da. Aldi berean, erabiliak izateko balio izatea, ez berehala hondakinean bihurtuko den zerbait.

Hau guztia eraginkorra izan dadin, bai bilketa puntuen banaketan bai aurreikusita dagoen errefusa bolumen guztia jasotzeko barietatean eta gaitasunean arreta berezia jarri behar da. Horrez gain, hondakinen kudeaketa egokira bideratutako azpiegitura multzoak modu zuzenean adierazita egon behar du.

Era berean, ekitaldian parte hartuko duten pertsonen, bai antolaketa lanetan bai ekitaldian bertan parte hartzen, nahikoa informazio eskaini beharko zaie. Ekitaldi motaren arabera eta bertaratuko direla aurreikusita dagoen pertsona kopuruaren arabera, botatzeko diren materialen uzte-gune egokian pertsonak egon daitezkeen aukera kontutan hartu behar da, informazioa eta laguntza eskaintzeko.

## EZTANDA / EKAITZA / TRUMOIA.

Kutsaduraz hitz egiten dugunean ahaztua geratzen dira, baina pertsonen ongizatea eta hauek inguratzen dituen ingurunea ziurtatzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea ekitaldia gauzatzen den bitartean, beraz, planifikazio fasean barneratu behar dira. Kutsadura akustikoaz eta argi-kutsaduraz ari gara hain zuzen ere.

Zentzu honetan, garatu behar den jardueraren izaera aztertzea eta balioztatzea beharrezkoa da, antolatzen den ekitaldiaren tamaina eta garatzen den ingurunea, horrela soinu eta argi eraginak gutxitzen dituzten neurriak planteatzeko aukera izango da. Interes bereziko espezieak dauden edo errunaldia edo umealdia bezalako epealdi sentikorreko egoerak daude, eta hauen aurrean kokalekua zein datak birplanteatzera eraman beharko ligukete.

Kasu bakoitzaren arabera, isiluneko edo soinu intentsitate gutxiko espazioen balioa kontuan har daiteke eta kontuan hartu behar da, baita musika akonpainamendu "atsegina", megafonia beharra edo ez, bere potentzia eta erabilera etengabea, etab.

Argi-kutsadurari dagokionez, neurri eraginkorrena, gure jardueraren ordutegia eguzki-argiaren iraupenera egokitzea izango litzateke, modu honetan argi-iturri artifizialak ekidinez. Ezinbestekoa izango balitz, eraginak minimizatzen dituzten neurriak daude, horien artean: mugimenduko sentsoreen erabilera, beharrezkoa ez den unetan argizatzea sahiesteko; beharrezkoa den lekura argia zuzentzen duten gailu egokiak hautatzea, argia zerura edo helburu guztiz estetikoak dituzten inguruneko elementuetara zuzentzen duten argi-iturriak ez erabiliz. Era berean, kontuan hartu behar dira erabiliko diren lanpara motak edo beste argi "tramankuluak".

## OINAK LURREAN.

Ekitaldi bat kudeatzeko garaian, garrantzia handiena hartzen duen eremuetako bat garraioa da, pertsonen bertaratze kopurua aurreikusi behar delako, bai ekitaldian parte hartuko dutenak (kirol froga bat bada, edo azoka bat, adibidez), bai ikusleak, antolakuntzako langileak eta materialen edota produktuen hornidura gauzatuko duten pertsonak.

Pertsonen eta merkantzien mugimendu horiek espazio berean eta denbora tarte zehatz batean gertatuko direla kontuan hartu behar da. Hori horrela izanik, ekitaldia ospatzeko, modalitate-arteke gaitasun altu bat duen zonalde bat hautatzea funtsezkoa da, hau da, garraiobide publiko kopuru gehien dituen eta oinez, bizikletaz edo gurpil aulkiak, ume-kotxeak, etab. bezalako bitarteko aktibo bidez joan daitekeen komunikazio nodo bat izan behar du.

Horrez gain, ezinbestekoa da, ekitaldian parte hartuko duten eta ekitaldira joango direnen artean mugikortasun jasangarria sustatzea eta erraztea, baita ekitaldiko joan-etorrietarako karbono isuri baxuak dituzten garraiobideen antolaketaren aldeko apustu argia sustatzea ere. Zentzu honetan, modu aktiboan edo garraio publikoaren bitartez erraz iristen den leku bat izateaz gain, informazio hori ekitaldiaren difusioan bertan egon behar du.

# BALIABIDE ETA TRESNA PRAKTIKOAK

Atal honetan, lanean zehar landutako hainbat gaitan sakontzeko eta hauek zabaltzeko baliabide eta tresna praktikoak aurkituko dituzu.

## KULTURA-HEZKUNTZA EZAUGARRIAK

- ▶ Elkarlanean Indarra. Sare lanaren gakoak. Emaús Gizarte Fundazioa. 2017ko martxoa.
- ▶ AmetsEkin. Amesten ditugun herri eragileak, nahi dugun eraldaketarako. Emaús Gizarte Fundazioa. 2016.
- ▶ Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa. Setem Hego Haizea. 2016.
- ▶ Nola diozu? Genero-ekitatean oinarritutako komunikazio bat, Mugarik Gabe-ren apustua. Mugarik Gabe. 2015.
- ▶ Dabilen harriari goroldiorik ez. Horizontaltasunaren eta militantziaren inguruan hausnartuz. Joxemi Zumalabe. 2014ko apirila.
- ▶ Elkar trukaketa linguistikorako laguntza gida. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoaren Hizkuntza eta Terminologia Zerbitzua. 2012ko abendua.
- ▶ Euskararen Erabilera Ez Sexista. EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. 2008ko maiatza.

## GIZARTE EZAUGARRIAK

- ▶ Jarduera protokoloa indarkeria matxistak prebenitzeko, identifikatzeko eta haien aurka esku-hartzeko. Setem Hego Haizea eta Gasteizko Udala. 2017ko uztaila.
- ▶ Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Miren Guillo Arakistain. U.E.U. 2017.
- ▶ Kultur ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko gidaliburua. 2016ko abendua.
- ▶ Eraso sexistarik gabeko jaien alde. Iruñeko Udala.
- ▶ Genero ikuspegia parte-hartzaile tailerretan barneratzeko gakoak. 2005
- ▶ Kirolean emakumeen kontrako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak. EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. 2015
- ▶ Irisgarritasuna ekitaldien antolakuntzan. Logroñoko Udala. 2005.
- ▶ Irisgarritasun unibertsia eta guztiontzako diseinua. Arkitektura eta hirigintza. ONCE Fundazioa, desgaitasuna duten pertsonekin lankidetzan aritzeko eta haiek gizarteratzeko eta COAM Arkitektura Fundazioa. 2011eko Ekaina.
- ▶ Tokiko entitateetako teknikarientzako irisgarritasun gidaliburua. ONCE Fundazioa, desgaitasuna duten pertsonekin lankidetzan aritzeko eta haiek gizarteratzeko eta ACS Fundazioa. 2011

## EZAUGARRI EKONOMIKOAK

- ▶ Ekonomia solidariotik lurraldeak eraldatzen. Tokiko politika publikoak sustatzeko tresnak. REAS Euskadi. 2016.

## INGURUMEN EZAUGARRIAK

- ▶ Ingurumenarekiko jasagarriak diren ekitaldiak antolatzeko eskuliburua. Metodologia Erronka Garbia. IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. 2017ko maiatza.
- ▶ Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua. Euskadiko administrazio publikotik bere ezarpenerako eredu eta adibideak. IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. 2014.
- ▶ Fundación Eventos Sostenibles-ek gure egunerokotasunean jarrera aldaketa bat sustatzen du, ingurumenarekiko dugun erlazioa hobetzeko eta beste bizitza eta garapen eredu batera bideratzeko, pertsonekin eta planetarekin errespetagarriagoa den batekin. 2014.
- ▶ Ekitaldi jasagarrien gida. Gasteizen ekitaldi jasagarriak antolatzeko zuzentarauak. Gasteizko Udala. 2012ko martxoa.
- ▶ Sustainable Events Guide. Give your large event a small footprint. UNON, ICLEI & IAMLADP. 2012
- ▶ Elikagaien, catering eta ekitaldien antolakuntzako hornidura kontratuetan jasagarritasun irizpideak barneratzea. Bidezko Merkataritzaren aldeko Unibertsitate Programa. IDEAS, 2011.
- ▶ Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak. IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. 2004ko abendua.

## BESTEAK

- ▶ REASen Merkatu Sozialaren katalogoa.
- ▶ Cristina Enea Fundazioarekin argitalpen fisikoen diseinu eta inpresiorako derrigorrez bete beharreko araudia.
- ▶ Mapasaretuz. Donostiako Kontsumo Arduratsuko lanabesa.
- ▶ OlatuKoop. Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Saretzen.
- ▶ REAS Euskadi. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sarea.
- ▶ Saretuz. Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzailearen aldeko Sarea.
- ▶ Interprest interpretazio sistema.

Edozein kasutan, gaiaren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero edo edozein zalantza edo galdera argitu nahi izanez gero, Saretuz-ekin harremanetan jar zaitezkete, bere posta elektronikoaren bitartez: [saretuz@gmail.com](mailto:saretuz@gmail.com). Saretuz-en web orria kontsultatuz ere, sareko argitalpen eta baliabide desberdinak kontsultatzeko aukera izango duzue, [www.saretuz.eus](http://www.saretuz.eus).